

2018-07-24ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2018ko uztailaren 24an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Ainhoa Ugalde Gorostiaga eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2018-05-29) ETA (2018-06-26).

Aurkeztu da 2018ko maiatzak 29ko eta 2018ko ekainaren 26ko akten zirriborroa.

Alkateak adierazi du azken aktan (06-26) 7. orrian h) paragrafoan agertzen da esaldi hau: "Alabaina , egia da ere Irura eta Tolosako herriak direla gehien birziklatzen duenak".

Baia horrela jarri behar du " Alabaina , hedabideetan agertu da Irura eta Tolosa herriak direla gehien birziklatzen dutenak, baina hori ez da egia".

Bestalde aktak aho batez onartu dira.

BIGARREN GAIA
ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018/104
DEKRETUTIK 2018/124 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2018/104 dekretutik 2018/124 dekretura bitartekoen berri eman dio Udaltzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA
IRURAKO UDALEKO 2017KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN
BERRI EMATEA.

2017ko Irurako Udaleko Aurrekontuaren likidazioaren Alkateak 2018ko ekainaren 28ko 113/18 Dekretuaren bidez onartu 2017ko Irurako Udaleko Aurrekontuaren likidazioa eta beren berria ematen da:

DEKRETUA

Udal honen 2017(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat datorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2017(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n:		505.370,88
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		240.118,05
Aurrekontuko zordunak :	237.192,69	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	2.812,79	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	-112,57	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		142.642,87
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	54.985,77	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	87.822,61	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	165,51	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		602.846,06
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00

7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	602.846,06
--	------------

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	201.499,24
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	17,70
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	0,00
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	201.516,94

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	355.891,06
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	1.491.852,23
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.847.743,29

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO UDALEKO 2018KO AURREKONTUEAREN 1. ALDAKETAREN ESPEDIENTEA JAKINARAZTEA.

Alkateak, 2018ko ekainaren 28ko 113/18 Dekretuaren bidez, onartu du 2018ko Irurako Udaleko Aurrekontuaren 1. Aldaketaren espedientea eta beren berria ematen da:

“21/2003 Foru Araua abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzkoaren 32. artikulua dio:

“1.- Toki erakundearen administrazioaren aurrekontuari, indarreko ekitaldikoak izanik, bakoitzaren aurreko ekitaldiko aurrekontuaren gastuen orrien barruko ordainketa kredituak txertatu ahal izango zaizkie, beti ere, aintzatetsiak diren betebeharren menpean egon gabe hurrengo kasuetatik betetakoak direnean:

-Kapital eragiketen ziozko kredituak.

2.- Kredituak txertatzen direnean, jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berdinarekin egingo dira.

3.- Kreditu gerakinak txertatu ahal izateko, horretarako nahikoa finantza baliabideak egon beharko dira.

4.- Kreditu txertaketak egiteko eskumena Alkateak dauka .”

Gainera aipatu arau foralaren 27.3 artikulua araberara:

“Onesten diren aldaketen berri eman beharko zaio udalbatzari egiten den lehenengo bileran.”

Idazkari-Kontuhartzailaren txostena ikusita eta aipatu diren eskumenen araberara,

ERABAKI DUT:

1.- 120.766,15 euroko kreditua txertatzea 2018ko Aurrekontuko partida honetan:

1.0000.622.321.00.00.2017 Eraikinak hezkuntza.

Helburua: “Haurreskola egokitzea S. Migel Plaza 6an ” obra.

Kreditua: 120.766,15 euro.

2.- Alkate dekretu honen berria ematea Udalbatzari egiten den lehenengo bileran.”

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

BOSGARREN GAIA

2018KO HERRI JAIEN EGITARAUA ETA AURREKONTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak, aho batez, onartu ditu 2018ko herri jaien egitaraua eta aurrekontua 40.000 eurokoa.

SEIGARREN GAIA

EUSKARALDIA ADIERAZPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Euskaraldia adierazpena aurkeztu da:

“Gipuzkoan bi hizkuntza ditugu ofizialak: euskara eta gaztelania. Begi bistakoa da, ordea, bi hizkuntzok ez daudela oreka egoera batean, ez esparru publikoan ez eta gizartean ere: gaztelania da nagusi. Uste dugu orain arteko ahaleginarekin bakarrik ez direla bi hizkuntzak parekatuko, indar gehiago jarri behar dugula hizkuntza-berdintasuna bultzatzeko; euskara lehenetsi behar dugula, alegia. Izan ere, gizarte-, genero- eta hizkuntza-berdintasuna lortzea da

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen erronketako bat, eta, horrenbestez, horretara bideratutako urratsak egitea.

UNESCOrentzat ere munduko hizkuntza-ondarea zaintzea eta hizkuntza gutxiak garatu ahal izatea da mende honek duen erronkarik garrantzitsuenetako bat. Izan ere, 7.000 hizkuntza inguruk osatzen dute munduko hizkuntza-ondarea. Munduko biztanleen % 97k hizkuntzen % 4 hitz egiten du ama-hizkuntza gisa, eta biztanleen % 3k hitz egiten du hizkuntzen gainerako % 96a. Horrela, bada, hizkuntza gutxi batzuk dira nagusi munduan, hizkuntza txiki eta gutxitu askorekin elkarbizitzan.

Gipuzkoan 100 hizkuntzatik gora hitz egiten dira eta ikasi beharko dugu aniztasun hori egoki kudeatzen; baina bizikidetzaren osasuntsu baterako lehen urratsa euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza orekatua lortzea da.

Norabide horretan, euskara biziberritzeko beharrezkoa dugu norbanakoen, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartu eta elkar elikatzen jarraitzea -Eusko Jaurlaritzaren *Eta Hemendik Aurrera Zer* txostenak ere halaxe jasotzen du-, eta, era berean, premiazko zat jotzen dugu hizkuntza gutxiuen aldeko hizkuntza-arau sozial berriei ere lekua egitea.

Guztion elkarlanari esker, euskararen normalizazio-prozesuak ibilbide oparoa izan du azken hamarkadetan, emaitza aipagarria da, baina, prozesu guztiek bezala, argi-itzalak ditu; bada pozik egoteko arrazoirik, baita kezkatzeko daturik ere.

2016. urtean egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, ezagutza-datuek nabarmen egin dute gora azken hamarraldietan, baina erabilera ez da neurri berean hazi; Gipuzkoan bizi den 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 57,4 euskalduna da eta biztanleen % 73,3k euskara ulertzen du. Erabilera-datuek diotenez, aldiz, Gipuzkoan 16 urtetik gorakoen % 39,5ek hitz egiten du euskaraz.

Datuon argitan, euskararen normalizazio-prozesua inflexio-puntuan dago, fase baten amaieran eta beste baten atarian. Aro berri horretan, agerikoa da erabileran jarri beharra dagoela indarra.

Euskararen ulermenari ez diogu behar besteko garrantzirik eman; izan ere, erabileraren korapiloa askatzeko gako nagusi bat ulermena da. Alegia, euskararen ulermenaren balioa azpimarratuz gero, ulermena erabat zabalduz gero, euskararentzat eta gipuzkoarrantzat erabilerarako eremu zabal eta emankorra zabalduko dugu. Kontuan hartzeko beste datu bat: Gipuzkoako udalerrri gehienetan ulermena % 80tik gorakoa da, eta gainerakoetan biztanleen % 60k baino gehiagok ulertzen du euskara.

Euskaraldia, 11 egun euskaraz, azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak, beste hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, abian jarri dute Euskaraldia ekimena. Gure udalerria ere buru-belarri sartu da, eta ekinbidea burutzeko batzordeak lanean dihardu.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara, eta 11 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, indarra ulermenean jarrita. Bi subjektu-mota bereizi dira: *ahobizi* eta *belarriprest*.

Ahobiziek, 11 egun horietan, euskarari eutsiko diote solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, belarriprestek, aldiz, solaskideak beraiekin euskaraz aritzera gonbidatuko dituzte, nahiz eta belarriprestak berak euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

Ekimenaren helburua hau da, besteak beste: ariketa praktikoko horren bidez ikusaraztea eta bizi-araztea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek igaro eta gero, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

Euskaraldia Gipuzkoako Foru Aldundian eta udaletan

EAEko euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintzaldiak honako datu hauek jasotzen ditu amaierako ebaluazio-txostenean:

- Gipuzkoako ordezkari politikoen % 90,4 gai da euskara ulertzeko eta % 86,8 euskaraz hitz egiteko.
- Gipuzkoako langile publikoen % 86,8k ongi edo oso ongi hitz egiten du euskaraz.

Aipatutako datuak eta Gipuzkoako egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, erabileran eragiteko baldintza egokiak ditugu Gipuzkoan. Euskaraldia, ostera, abagune aproposa dugu Gipuzkoako erakunde publikook eta arduradun politikook dagokigun erantzukizuna geure gain hartu eta eredugarritasunez joka dezagun, erabileran urrats berriak egin ditzagun.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Irurako Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Ordezkari politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen

honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzekeko urratsak egingo ditugu, arduradun politikoak zein langileak izan.

- Ahobiziok euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Belarriprestok gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.
- Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- Udalak bat egiten du ekimena elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin Gipuzkoan, ahalik eta udal eta mankomunitate gehienetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Batzar Nagusietan, lurralde mailako politika bateratu bati begira. “

Eta udalbatzak aho batez onartu du.

ZAZPIGARREN GAIA

IDAIZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Txosten hau jakinarazten da:

-Adierazitako eragozpenen kontra toki erakundeko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan eta halaber, diru sarraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena.

Eta udalbatzak aho batez jakinaren gainean geratu da.

ZORTZIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:

- a) Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) , adierazi du Setalde argiteri kontratua sinatu dela eta galdetzen du lehiaketa egin den edo ez.

Alkateak erantzun du enpresa horrek ematen duela argiteri publikoena.

- b) Olaia Nietok (EH Bildu) galdetu nola dagoen plazako zaharretxe lokalena.

Alkateak erantzun du bost lagun etorri direla galdetzeko eta dokumentazio eman die eta lokala aztertu dute eta esan die eskaintza lokalari buruz nahi ba dute egitea . Denok esan dute pentsatuko dutela baina ez dute eskaintza aurkeztu .Joan den astean beste pertsona bat etorri zen eta bere erantzunaren zain dago. Batek bakarrik esan du ez

dela bideragarri. Epea amaitu da, baina beste norbait etortzen bada hitz egingo da.

Mikel Gotzon Iturbek (EH Bildu) erantzun du bera ere ados dagoela ez dela bideragarri.

Alkateak erantzun du etorri direnak ez dute galdetzen hainbat obrari buruz, jendearen kontsumo aldetik: plazan badabilen jenderik, herriko kontsumoa eta erosketak. Iragarkia jarri da Gipuzkoako Ostalaritza Elkartean eta Tolosaldea Garatzen, baina hauek esan diote orain oso une txarra dela udara dela eta. Iraila une hobea izango da eskaintzak jasotzeko.

Olaia Nietok (EH Bildu) erantzun du agian unea dela epea amaitzeko eta plan B aurkezteko.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) erantzun du, beste Plan zegoela, proiektua egina dago eta herria alde dago, baina gero PNV-ek atzera bota du proiektua Bildukoa zelako.

Alkateak erantzun du hori egitea oso erraz dela, obra egiten duzu eta gero inor ez ba dator obra ezertarako geratuko da.

Jose Ignazio Imaz (EH Bildu) erantzun du obra egin ondoren eta gero libre utzita, baldintza hauekin argi dago aurrera joango zela, gazteak eta jubilatuek argi esan dute ados daudela eta atzera bota da ideia Bilduko zela eta teknikoek esan dutela lehiakortasun desleiala dela. Azkenean herri ostaturia osatzea da.

Olaia Nietok (EH Bildu) adierazi du pentsatu behar dela langabezia dagoenak non lortuko dun diru hori obra hori egiteko.

Alkateak erantzun du itxaroko dela irailera bosgarren erantzuna aurkezten den edo ez.

- c) Olaia Nietok azaldu du, dirudienez, batxilergo ikasleak EGA azterketa egin dutenak eta Udaletara joan direla diru laguntza jasotzeko azterketa prestatzeko kostua finantzatzeko eta Iruran kasuan ez dela ordaindu.

Alkateak erantzun du gai hau berarentzat berria dela eta dago eskaerarik baina enteratuko dela.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA